... tenemos derecho a intervenir en su gestión, derecho reconocido e impulsado por las leyes europeas.

... es donde aprobamos su Proyecto Educativo

... donde marcamos las directrices de funcionamiento del comedor escolar

... donde aprobamos su presupuesto

... donde podemos hacer las propuestas que consideremos mejores para nuestras hijas e hijos.

... donde aprobamos su horario y el calendario escolar

... donde fijamos los criterios para las actividades extraescolares y complementarias.

... donde aprobamos su programación general

... donde resolvemos los conflictos que puedan surgir

Organo horretan, bestalde, hezkuntza komunitatea osatzen dugun talde guztiek dugu ordezkari-tza.

**Hauteskunde egunean bertan ez baduzu joaterik, bidal ezazu zure botoa zure seme-alabaren bitartez, eta hark Ikastetxean utziko du.**



# BAIKARAK AURRERA JARRAITZEN DU TREBAKUNTZA PROGRAMEKIN

IKASTURTE BERRIAREKIN BATERA, GIPUZKOAKO IKASTETXEETAN BARRENA IBILI DA FEDERAZIOA ESKOLA PUBLIKOKO GURASOEI HAINBAT IKASTARO ESKAINTZEN.

Ikasturte honetan **Baikarak** 4 esku-hartze proposamen eskainiko dizkie ikasleei:

- **"Jolasean erronkei aurre egin"**: ikasleen artean norbanakoaren zein taldearen gaitasun kritikoa bultzatzeko.
- **"Jolasean elkar ezagutzen dugu"**: ikasleengan elkarbizitzara bideratutako gizarte trebetasunak pizteko.
- **"Jolasean erabakiak hartu"**: oreka osasuntsua lortzearen, drogekin nola bizi ikasteko.
- **"Jolasean autoestimua indartzeko dugu"**: ikasleek beren buruaren zein taldearen onarpena bultzatzeko.

Gero eta ikastetxe gehiagok, **Eskola Txikiek** besteak beste, parte hartzen dute egitasmo horietan. Esate baterako, azaroan

**Abaltzisketako Eskolan** izan ginen "Jolasean elkar ezagutzen dugu" programarekin. Bertan, beste Eskola askotan gertatu bezala, oso harrera goxoa izan genuela azpimarratu nahi dugu.

Bestalde, Hernaniko Urumea ikastetxean "Gizarte trebetasunak eta gatazken konponbidea" gaiari buruzko programa bat osatu da helburu hauek lortzeko asmoz:

- komunikazioaren eraginkortasuna handitzea.
- entrenamendurako eta gogoetarako guneak sortzea.
- komunikazioerako bideak zabaltzea eta zabalik mantentzea.
- gatazkek konpontzeko metodoak ikastea eta horietan trebatzea.
- emozioen eta jarreraren alorreko zailtasunak gainditzeko estrategiak eta teknikak ezagutzeko.
- taldearen interakzioaren bitartez jarrera kooperatiboak barneratzea.

- gatazkek konpontzen ikastea.

Aldi berean, Getariako Iturzaetan bost orduko trebakuntza saioa eskaini zaie gurasoei Eskola Kontseiluei buruz. Organo horien funtzionamenduari, legediari, etab. buruzko informazioa zabaltzea zen helburua, eta horrez gainera, gatazkek konpontzeko estrategietara eta trebetasunetara hurbiltzea. Azkenik, Donostiako Intxaurren Ikastolan jangelako begiraleei, Gabonetako oporrak hartu baino lehen, gatazken konponbideari buruzko trebakuntza ikastaroa eman zaie. Kasu horretan, sei trebakuntza saio izan dira, lehenengo biak alderdi teorikoei buruzkoak eta gainerako laurak hainbat jardura estrategiari buruzkoak; jangelako begiraleek egiten duten lana hobetzeko garrantzizkoak dira, gure ustez, azken biak.



**Tolosako Samaniego ikastetxea Ekoeskola proiektua lantzen ari da azken urteetan, Eskolako Agenda 21 prozesuan buru-belarri sartuta dago eta 2000. urtean "Bandera Berdea" eskuratu zuen.**

## Eskola klimatikorantz

**E**raikin bioklimatikoaren helburu nagusia ingurumena zaintzeko eta didaktika eta hezkuntza proiektu bat lantzeko aukera ematea da. Izan ere, eraikin horren bidez haurrek txikitatik ezagutuko dute eraikin bioklimatikoak zer diren, energia berriztagarriak zer diren eta nola diharduten.

Era honetako eraikin bat edukitzeak argi erakusten du eskolak baduela zeresanik eguneroko bizitzari buruz eta gizartearen garapenari dagokionez, ingurumena kontuan hartuz, baliabide naturalen mugen berri emanez eta horiekiko errespetua sustatuz. Era honetako zentroek irakaskuntza eta ikaskuntza baliabide egokiak eskaintzen ditu, eguneroko bizitzan txertatuta.

Mota honetako eskola ekologikoak eraikitzen aitzindarietakoa da Euskal Autonomia Erkidegoa; horretarako, material ez-kutsagarriak erabiltzen dira, material ez-toxiko, berrerabilgarri eta birziklagarriak erabiltzen dira, energia aurrezteko eta energia berriztagarriak baliatzeko.

Garapen iraunkorraren bidez ingurumenaren kontserbaziorako irizpide orokorrekin bat datozen eraikinak dira. Beren diseinu bereziaren bidez ur ugari aurrezten

da, euri ura erabiltzen baita komunitan eta ureztatze sistemetan. Gure inguruko klima eta lurzorua aztertuta, urtean 1.200 litro/m<sup>2</sup> biltzen direla kalkulatu da, estatistikoki; beraz, euri ur ugari gorde ahal izango da ikastetxean erabiltzeko, edateko ez beste hainbat erabilertan. Euri ura jaso, bildu eta aprobetxatuko dute, hain zuzen, komunitarako eta ureztatze sistemarako, eta deskarga bikoitzeko tangak eta irekiera atzeratuko iturriak ere ezarriko dira.

Eraikuntza bioklimatikoaren kontzeptua konplexua da, oso ongi uztartu behar baititu arkitektura eta klima, ingurunea eta bertako biotipoa, ingurumena, baliabide naturalen mugak, izaki biziak, ingurumen osasuna, baliabide material eta energia baliabideak eta jarioak, eraikuntza prozesua, eraikinaren ustiapen egokia, eta eraiste-berrerabiltze-birziklatze egokia, besteak beste. Azken batean, oso kontuan hartu behar ditu garapen iraunkorra ahalbidetzen duten eragile guztiak. Kontuan hartzen diren planteamenduen arabera eta horiek ekarritako soluzioen arabera esan ahal izango da era honetako eraikinak eta beren ustiapena zenbateraino diren bioklimatikoak eta ekologikoak.

### Samaniego, ejemplo de escuela bioclimática

El principal objetivo del edificio bioclimático es cuidar del medio ambiente y hacer de él un proyecto didáctico y educativo. De este modo, los niños y niñas conocerán desde su infancia lo que es un edificio bioclimático, las energías alternativas y su funcionamiento.

Un edificio de esas características demuestra que la escuela tiene algo que decir sobre la vida cotidiana y el desarrollo de la sociedad, teniendo en cuenta el medio ambiente, dando a conocer las limitaciones de los recursos naturales y fomentando el respeto que debe tenerse hacia ellos. Un centro así, desarrolla de manera práctica una enseñanza y un aprendizaje adecuados, integrados en el funcionamiento diario.



# Inaugurada la nueva Escuela Infantil de Bidebieta

**E**l ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, Ciudad Educadora y comprometida en la promoción de la existencia de un mayor número de plazas de escolarización en la franja de edad de 0 a 2 años, inaugura hoy la nueva Escuela Infantil de Bidebieta con 75 plazas para niños y niñas en la calle Serapio Múgica.

Con la incorporación del Ayuntamiento al Consorcio Haurreskolak, y la inclusión en el

mismo de los anteriormente centros privados de Ategorritxo, Bidebieta Hirusta, Harri Berri, Landetxe y Roteta, se ha modificado sustancialmente la estructura de la atención educativa a los niños y niñas en este tramo de edad, ampliando la oferta pública de la ciudad, en un total de 380 plazas, consolidando 502 plazas en San Sebastián.

La "Haurreskola Bidebieta Hirusta" ofrece servicios especiali-

zados en la atención educativa y asistencial de la primera infancia, y dispone de 654 m<sup>2</sup> que cuentan con la siguiente distribución:

**7 aulas separadas mediante mamparas (con posibilidad de unificarlas o separarlas según las necesidades), sala de cunas, cocina, comedor, aula de psicomotricidad, despacho/oficina, aseos/vestuarios, sala de material y patio exterior/zona de juegos.**



## Haur Eskola berria inauguratu dute Bidebietan

**75 HAURRENTZAKO TOKIA DU ETA HAURTXOEN HEZKUNTZAZ ETA ASISTENTZIAZ ARDURATUKO DA**

**D**onostiako Udalak, heziketarekiko kezka nabaria duen hiria izanik eta 0-2 urte bitarteko ahalik eta haur gehien eskolatzeko tokia sustatzeko konpromisoa hartua duenez, Haur Eskola berria inauguratu du Bidebietan; Serapio Mugika kalean dago eskola berria, eta 75

haurrentzako tokia du.

Udalak Haurreskolak Partzuergoarekin bat egin izanari esker eta aurretik Ategorritxo, Bidebieta Hirusta, Harri Berri, Landetxe eta Rotetako zentro pribatuak Partzuergo horretan sartu izanari esker, nabarmen aldatu da adin tarte horretako haurren arretarako

egitura; hiriaren eskaintza publikoan 380 toki gehiago daude gaur egun, 502 haurrentzako tokia, guztira, Donostian.

"Haurreskola Bidebieta Hirusta" zentroak zerbitzu espezializatuak eskainiko ditu haurtxoen hezkuntzarako eta asistentziarako, eta 654 m<sup>2</sup>-ko eremua erabiliko du horretarako. Honela banatu dute espazioa:

**7 gela bereizi (gelak bereizteko hesi edo horma mugigarriak kendu edo lekualdatu egin daitezke, beharren arabera), sehaska gela, sukaldea, jangela, psikomotritate gela, bulegoa, komuna/aldagelak, material gela eta kanpoko patioa/jolaslekua.**





## Semana del Euskara en Virgen del Carmen

El centro Karmengo Ama de Pasaia ha celebrado la novena edición de la Semana del Euskara, cuyos actos se han vivido en el centro a lo largo de la semana de 6 al 10 de noviembre. El lunes, día 6, hubo animación con el grupo Kulki para el alumnado de Primaria, además de cuenta cuentos con Maite Franco, para los más pequeños. Ya por la tarde, ambientación en las aulas y en el colegio. El martes, día 7, juegos populares para el alumnado de Educación Infantil y primer ciclo, así como el concurso Euskaraz jo eta ke, de dibujo y literatura para el alumnado de segundo y tercer ciclo. El mié-

les, día 8, dentro de la campaña 'Conocer Euskal Herria', el alumnado hizo una salida para conocer un rincón cercano. El jueves, día 9, concurso Euskaraz jo eta ke, de dibujo y literatura para los alumnos de Educación Infantil y primer ciclo. Además ese día hubo juegos populares para los alumnos de segundo y tercer ciclo. El viernes, día 10, clausura de la semana; la fiesta dio comienzo a las 15.15 horas, en el patio de Educación Infantil, con una Euskal Festa, entrega de premios, juegos populares para los familiares, merienda para el alumnado de 6º, así como para padres y madres.

## Bidegoiango Marrazki Lehiaketako txapeldunak

Bidegoiango kultura astean, urrian, askotariko ekitaldiak antolatu zituzten. Aipatzekoak dira, besteak beste, marrazki lehiaketa, 5 eta 12 urte bitarteko 54 partaide bildu zituena; parte-hartzaileek marrazki ikusgarriak aurkeztu zituzten lehiaketara. Edonola ere, ezin denek irabazi, eta harro-harro agertu ziren txapeldunak.

Hona hemen sailkapena:

### 5 urtekoak,

1.a Aitor Losa,  
2.a Goretti Aburuza,  
3.a Oier Lakuntza;

### 6 eta 8 urte bitartekoak,

1.a Joseba Zinkunegi,  
2.a Nerea Ruiz,  
3.a Maite Larrarte;

### 9 eta 11 urte bitartekoak,

1.a Aritz Aramendi,

2.a Joseba Iraola,  
3.a Nagore Zinkunegi;

### 12 urtekoak,

1.a Miriam Etxeberria.  
2.a Oihana Iraola  
3.a Imanol Imaz.

Gaztetxo horiek guztiek jaso zuten saria, Tolosako Manolo Arretxe marrazki eta margolaritza irakaslearen eskutik.



## Pello Zabala, Errekalden

**Pello Zabala frantziskotar eta eguraldi gizon ospetsuak hitzaldia eman zuen Oñatiko Errekalde herri eskolan**, tenporen eta horien iragazpenaren gaineko jakin-mina zuten ororentzat. Arantzazuko frantziskotarrak guraso eta irakasle ugari erakarri zituen, baita ikastetxearekin loturarik ez duten oñatiarrak ere, hitzaldia irekia baitzen. Izenburua: "Meteorologia eta klima aldaketa".

## Zinema familiarean, Elgetan

**Ikastetxeko Guraso Elkartek zinema familiarean ikusteko ekimena antolatu ohi du, Espaloiarekin lankidetzan**. Aurtengo egitaraua azaroan hasi zen, azaroaren 5ean, hain zuzen, eta apirilaren amaierara bitartean, igande arratsaldetan badago

aisialdirako aukera berri bat Elgetan, haurrentzako film bat proiektatuko baitute asteen. Emanaldiak 17:30etik aurrera izango dira eta, aurreko ekitaldietan bezala, guraso boluntarioen laguntzari esker eramango dute aurrera jarduera.

## Eskola Txikiak, elkar hobeto ezagutzen

**Eskualdean hainbat Eskola Txiki daude**, eta iaz programa bat jarri zuten abian elkar ezagutzeko. Programa hori Aizarnazabalgo, Aizarnako, Arroa Beheko eta Oikiako eskolek jarri dute martxan. Hiru hilabete behin elkartuko dira, eta dagoeneko egin dute ikasturte honetako lehenengo topaketa, Aizarnan. Bertan, Lehen Hezkuntzako 50 ikasle inguru elkartu ziren. Goizean, herri kirolak egin zituzten, eguerdian denek elkarrekin bazkaldu zuten eta, bukatzeko, arratsaldean mendi buelta egin zuten.







## Onddo erakusketa Luis Eceiza elkarteak antolatuta (Eskoriatza)

Azaroan, Luis Eceiza guraso Elkarteak onddo erakusketa bat antolatu zuen Eskoriatzako plazan, Mendi Bizikletaren XVII. edizioa zela-eta. Postu batzuetan aurreko egunean bildutako onddoak ikus zitezkeen, eta beste batzuetan, berri, onddo horiek

berak jateko aukera izan zen, Laudioko Elkarre Mikologikoak prestatu ondoren. Eguraldiak ere asko lagundu zuen gauzak ezin hobeto irten zitezzen, zeru urdinak ere herriko plazara joateko eta haurrekin atsegin hartzeko deia egin baitzuen.



## GAIN ZURI Y LUZARO EN EL TITIRIJAI 06

Al igual que en ediciones anteriores, el Titirijai de Tolosa ha presentado una exposición paralela al propio festival, que este año ha estado dedicada al Títere Ibérico. Además, se da la circunstancia de que este es un año especial para Tolosa ya que se cumplen 750 años desde que el Rey Alfonso X El Sabio otor-

gara la carta puebla que le confirmaba y reconocía como Villa. Más de ochocientos niños y niñas procedentes de los diferentes centros escolares de Gipuzkoa se han acercado diariamente a Tolosa para disfrutar de su festival y visitar tan atractiva muestra, tal es el caso de Gain Zuri de Urretxu o Luzaro de Deba.



## DOMINGO AGIRRE,

Izan ere, datorren urtean, eskola eraiki zeneko 25. urteurrena ospatuko dugu eta prestaketa lanetan hasiak gara dagoeneko.

Ordura arte auzoetan sakabanaturik zeuden eskolak bateratu egin ziren eta gaur egungo Domingo Agirre ikastetxea osatu zuten. Horrela, 1982ko apirilaren 25ean inauguratu zen eraikuntza berria.

Urte hauetan, herriko historiaren parte izan da eskola. Irakasle, ikasle eta gurasoen elkarlanean oinarriturik, heziketa proiektu sendoa aurrera eramaten eta Legazpiko hainbat neska-mutilen heziketaz arduratzen.

Urteurrena aitzakia ezin hobea da atzera begiratu eta garai haiek gogoratzeko. Baina gogoeta egiteaz gainera, oroimen horiek jasotzea nahi genuke, ondorengo belaunaldiek ere iraganaren berri izan dezaten.

Helburu hori betetzeko batzorde bat osatu dugu (gurasoak eta irakasleak inplikaturik) eta dagoeneko, dokumentazio lanetan ari da. Horrez gainera, eskolarekin lotura duten edo izan duten guztiekin gogoratzea eta elkarrekin une atseginak igarotzea da asmoa.

Hona hemen egingo diren ekintzen berri:  
- Eskolako ikasleen arteko marrazki lehiaketa.





## XXV. URTEURRENA

Marrazki irabazlea erabiliz, ikasleentzako agenda eta egutegi txikiak diseinatu.

- Eskolako patioa margotu, graffiti edo ikasleen marrazkiekin.
  - Ikasleen, gurasoen eta eskolako langileen argazkiekin 2007ko egutegia atera.
  - Inaugurazio ekitaldia antolatu (bertsoak, jolasak, buruhandiak, dantza, merienda, musika... ).
  - Ikastetxearen ibilbidearen inguruko gogoetak liburu edo aldizkari batean jaso.
- Hiruhilabete behin, irteera bat antolatu, gaur egungo ikasle, guraso eta irakasleekin (mendi irteerak, asteburuko

kanpaldia...)

- Ekitaldi kulturalak antolatu: hitzaldiak, mahai-inguruak .....
  - Kultur Etxean argazki erakusketa antolatu.
  - Ikastetxearekin harremana duten edo izan duten irakasle, ikasle eta gurasoekin bazkaria antolatu eta partaide guztiei oroigarri txiki bat oparitu. Hurrengo bileretan proposatutakoak.....
- Horrekin batera, marrazki lehiaketan irabazle izandako marrazkia bidaltzen dizut. Argazkiak bana-ka joango zaizkizu arazoak ditugulako denak batera igortzeko.





## Euskal Eskola Publikoaren Jaia

### **Euskal Eskola Publikoaren Jaia badu eguna eta lekua: ekainaren 3an, Ondarroan.**

Azaroan egin zen jaiaren aurkezpena aipatutako bizkaitar udalerrian. Slogana ere eman zen ezagutzera: 'Dra', kostaldeko herri honetako berezko esapidea, "bete-betea asma-

tu" esateko erabiltzen dena. Beste edizioetan bezala, EHIGEek eskabide mezu bat kaleratuko du, honako gai hauek aldarrikatzeko: berdintasunaren babesa hezkuntza-aren kalitatearen oinarri, euskal curriculum eta ikastetxeen autonomia. Jaiaren izaera ludi-

koa izango da, aurten ere, jendea erakartzeko deia. Hezkuntza sistema publikoko protagonistak eskola publikoari euskal gizartearen barruan dagokion eremua aldarrikatzeko xedez hurbilduko dira Ondarroara.



## Eibarko Arrateko Andre Mariaren XXV. urteurrena

Azaroaren 25ean, larunbata, izan zen Eibarko Arrateko Andre Mariaren ikastetxeko ikasle ohien urteurrenoko bazkaria. Bazkariaren arrazoia argia zen: ikasturte honetan da ikastetxearen XXV. urteurrena. Bazkarian, ikasle eta irakasleek "garai bate-

ko" kontuak ekarri zituzten gogora, eta oso hizketaldi atsegina izan zuten, nostalgia apur batez zipriztinduta. Azken osagai hori ezinbestekoa zen, kontuan hartuta ikastetxea sortu zeneko hogeita bosgarren urteurrena ospatzen zela.



## Eskola trukea Kurtzebarrin (Aretxabaleta)

### KURTZEBARRI BHI (ARETXABAETA, EUSKAL HERRIA) MERLET COLLEGE (CUIJK, HERBEHEREAK) ELKARTRUKEA

*Ez dugu eskolarako hezten, bizitzarako baizik. Seneka: Epistolae morales.*

105, 104, 103, 102 egun falta dira, ... Ez dakigu egutegiari noiztik ez diogun hainbeste begiratu, noiztik ez diogun horrenbeste X jarri...

Merletcollegetako lagunekin emandako aste sakonaren ostean zaila egiten zaigu barnean utzi diguten hutsunea betetzea.

Elkarrekin bizitakoa gogoratuz ematen ditugu egunak eta lanean dihardugu hegazkina noiz hartuko zain: 101, 100...

Zazpi egunetan, Kurtzebarri BHI, DBH 4. mailako ikasleok etxean eduki ditugu holandar kideak. Elkarrekin BIZI egin gara. Lan, eskolan, Aretxabaleta eta inguruak erakutsi eta Bilbao, Donostia eta Gasteizeko arte, zientzia eta historia altxorrek deskubritu ditugu elkarrekin. Beste bitxikeri askoren artean, geurean 0º gradutako bide gutxi dagoela konturatu gara; eguerdiko 12ak baino lehen alda-

menekoaren urdaila negarrez entzun dugu ogitartekoa eske; ez, ez dira bi musu hiru baizik eta bai, ingelesak ere zerbaiterako balio omen du eta, gainera, badakigu pentsatzen genuena baino gehiago!... eta zertarako erabili dugun ingelesa? Den-dena ere ez dugu kontatu behar...

Lehenengo egun hartan, trikiti, pandero, txistu eta poxpolin jantziak aldean, Forondara ongi etorria ematera joan ginenean geneukan tripa-bete-mariposa, hutsitu egin zitzaigun apur-apurka. Zazpigarrenerako, ordea, berriro ere gaixotasun sintoma larriak sumatu genituen: ur gazia matrailetatik behera, beso artean norbait eduki beharra, atzamarrek txateko teklaturtik altza-ezina, tristurpoz handia...

... 99, 98, 97, see you soon!



## Loinazpe institutuak (Beasain) aldizkari berria kaleratu du

**Komunikabideek duten 'ahalmenaz' eta era honetako argitalpenek izaten duten harrera onaz jabeturik, Loinazpe Institutuak bere aldizkariaren lehenengo alea kaleratu du. Bertan ikasleak zein ikastetxea bera dira protagonista. Kolorez beteriko zortzi orrialdek osatzen dute aldizkaria, eta bertan, ikasleen albisteak eta hezkuntzaren alorreko azken berriak irakur daitezke, euskaraz zein gaztelaniaz, hizkuntza errazean, eta hezkuntza komunitate osoaren esku jarriko da. Lehenengo ale honetan honako gai hauek landu dira: jangela, Agenda 21, heziketaren normalizazioa, kalitatea eta ikasleek egindako hainbat irtealdiren argazkiak.**





## Jangela berria, Oikiako herri eskolan

Urrian jangela berria inauguratu zuten Oikiako Herri Eskolan. Areto berrian 18 haurrentzako tokia dute. Instalazio berriak inauguratzeko ekitaldian honako kide hauek parte hartu zuten, besteak beste: Maria Eugenia Arrizabalaga, Zumaiko alkathea; Arantxa Laka, Hezkuntzako ordezkaria; Lide Amilibia, hezkuntzako zinegotzia; eta Mertxe Diez, Oikiako herri eskolaren zuzendaria.

Jangelaren lokala Oikiako frontoiaren atzealdean dago, orain artean biltegi moduan erabiltzen zuten aretoan. Jangela berria Oikiako Guraso Elkartean egindako eskariari jarraituz zabaldu dute. Eskari horri erantzunez, hortxe daude instalazio berriak, Udalaren, Guraso Elkartean eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren artean lankidetzan eratuak.



## Angiozarren (Bergara) jangela eta haurtzaindegi zerbitzuak eskainiko dira

Angiozarko eskolak jangela eta haurtzaindegi zerbitzuak aurkeztu zituen orain dela gutxi. Zerbitzu horiek ikastetxeko guraso Elkartean laguntzarekin jarri ziren martxan, ikastetxearen etorkizunari bultzada emateko asmoz.

Jangela eta haurtzaindegi zerbitzuen egutegiari dagokionez, gurasoen lan beharretara egokitutako egutegia izango da, halako eran non eskolan jai eguna izanda ere berdindin eskainiko diren zerbitzu horiek. Martxan dira dagoeneko, eta asmoa da Angiozarko beste auzoko batzuei ere, nahiz eta ikastetxe horretara ez joan, ateak zabaltzea.

Arrazoi horregatik, elkartearantz proiektu hori "herriarentzako eta bertakoentzako proposamena da, eta ez bakarrik eskola komunitatearentzat".

Ikastetxean 2 eta 5 urte bitarte eskola aurreko hezkuntza eskaintzen da; zortzi ikasle ditu guztira. Haurtzaindegi zerbitzua goizeko 7.30ean jartzen da martxan eta eskolak hasi bitartean zaintzen dira ikasleak. Ondoren jantokia iristen da, eta bazkalosteko zerbitzua arratsaldeko 5ak arte mantenduko da. Ondoren, liburutegia zabalduko da eta haurrak bertan gelditzeko aukera izango dute.




## Ludoteca en Dumboa

También desde la Federación se ofrece un servicio de ludoteca para que, padres y madres, puedan acudir juntos a las reuniones del centro. En esta ocasión la ludoteca tuvo lugar en Dumboa de Irún, donde los más pequeños disfrutaron como nunca de un taller de música en el que aprendieron a hacer maracas, todo ello al mejor ritmo marcado por la monitora.



*Zorionak eta Urte Berrí on!*




# Begiratu zientziari beste era batera

## Mira la Ciencia con otros ojos

gizarte ekintza  
obra social

hezkuntza  
educación



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**Kutxa**, bere Gizarte-Ekintzaren bidez, zientzia jolasgarriago bihurtzeko formula zehatza aurkitu du, **Zientziaren kutxaGunea**.

Ingurunean duguna hainbat sistema elkarrengaren bitartez uler dezagun asmatutako gune bat. Hemen ukitu, behatu, ulertu, gozatu egin baitezakezu.

- 170 esperimendu interaktibo.
- 10 erakusketa finko (gaikakoak).
- Planetarium digitala eta Planetarium Txikia (umeentzako).
- Elektrizitate-tailerra.
- Denboraldi baterako erakusketak.
- Ikastetxeetarako hezkuntza-programak eta material didaktikoa.
- Animazio-ekintzak eta adin guztietako jendearentzako zuzeneko ikuskizunak.
- Aparkalekua, dohainik.

**Kutxa**, a través de su Obra Social, ha descubierto la fórmula para que la ciencia sea más divertida, **kutxaEspacio de la Ciencia**.

Un centro pensado para comprender lo que nos rodea mediante sistemas interactivos. Aquí puedes tocar, observar, comprender, disfrutar.

- 170 experimentos interactivos.
- 10 exposiciones temáticas permanentes.
- Planetarium digital y Planetarium Txiki (infantil).
- Taller de la electricidad.
- Exposiciones temporales.
- Programas educativos y material didáctico, para centros escolares.
- Actividades de animación y espectáculos en directo para todos los públicos.
- Parking gratuito.

### Mikeletegi Pasealekua 45. DONOSTIA

Asteartetik ostiralera, 10:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 19:00etara (udan, 20:00etara)

Itxita egongo da astelehenetan (abuztuan izan ezik) eta egun hauetan: urtarrilaren 1ean, urtarrilaren 6an, urtarrilaren 20an eta abenduaren 25ean. Goizez bakarrik egongo da zabalik abenduaren 24an eta abenduaren 31n.

### Mikeletegi Pasealekua 45. SAN SEBASTIAN

Martes a viernes de 10:00 a 19:00 (20:00 en verano)

Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 19:00 (20:00 en verano)

Cerrados los lunes (excepto en agosto) y los días 1, 6 y 20 de enero y el 25 de diciembre.

Abierto sólo por la mañana el 24 de diciembre y 31 de diciembre.